

Lucia Barandiaran Imaz

D maila • 2 aipamena

Kaixo! Lucia Barandiaran Imaz naiz, hamabi urteko Beasaindarra.
Nire zaletasunak atletismoa, eskiatzea eta, batez ere, lagunekin egotea dira.
Horrelako aipamen edo sari bat lortzen dudan lehenengo aldia dela eta, asko poztu naiz. Hitzez-hitz, lerroz-lerro, hauxe da nire lana.



HAU BAI ABENTURA!

“Pi-pi-pi-pi-pi-pi-pi-pi” jo du gogor nire iratzargailuak. Goizeko zortziak dira. Zerua txokolaterik gabeko ogitarteko bat bezain triste dago, eta hotz da. Beno, ohetik jaiki eta gosaltzera noa, gelatik atera eta segundora, amona Mari Terek prestatutako hirugiharraren usain goxo eta erakargarria sudur hobietatik gorantz joan zait bihotzera. Poz-pozik eta azkar-azkar, sukaldera jaitsi naiz. Mahaian eseri, eta amonari prestatutako gosariagatik eskerrak eman dizkiot.

Gosaltzen bukatu ondoren, gelara igo, mugikorra piztu eta Igarneren watssap bat dudala ikustean, poz-pozik jarri naiz. Mezuak zera zioen: “Gelditu nahi al duzu bueltatxo bat emateko?”. Momentuan baietz erantzun eta prestatzen hasi naiz. Leihotik begiratu eta gaurko eguraldi kaxkarra ikusita, izebak oparitutako artilezko jertse lodi-lodia, arrosa koloredun elastikoak eta uretako katiuskak jantzi ditut. Gelatik atera, amonarengana joan, eta Igarnerekin geratuta nagoela san diot. Amonak muxu bat eman dit masailean, eta bazkalordurako etxera itzultzeko esan dit.

Igarne eta biok, zer egin pentsatu nahian gabiltza. Ateri dago eta eguzkia ezta bezain goxo dago. Ideia bikaina bururatu zait. Etxera joan, bizikleta hartu eta Arriaran aldera abiatuko gara. Bizikleta gainean jarri, eta hegoaldeetik datorren haize alaia nabaritzen dut, alai-alai goaz biok, eroak bezala Huntza taldearen “Lasai lasai” abestia abestuz. Horren azkar goaz, ia ia ere lurrera ere erori naizela.

Dagoeneko iritsi gara. Igarneren aiton-amonak Arriarango baserri zahar batean bizi ziren duela urte asko eta asko. Beraz, Igarnek badaki nun dagoen etxera sartzeko giltza. Giltza hartu eta baserrian sartu gara beraz. Baserria, hitzik gabeko liburu bat bezain hutsa dago. Aspaldian erabiltzen ziren ariketa bizikleta zaharkitu bat da han aurkitu dugun gauza bakarra.

Etxeko terrazara atera, eta bertan amonak prestatutako txokolatzeko ogitartekoa jaten hasi naiz. Goxo-goxa dago. Muturrean ere txokolatzeko bibote bat atera zait. Aitona Iñakiren bibotearen antza du! Bat-batean euria barra-barra hasi du, eta etxera joateko garaia da dagoeneko. Etxera bueltatzeko zailtasun ugari ditugu; busti egingo gara, lurrera erortzeko arriskua ere badaukagu... Buruari milaka eta milaka bira eman ondoren, ideia bikaina bururatu zaio Igarneri. Pare bat arrantza kañabera badauzkat, eta ondoko baserrikoak baratz ederra

dauka, beraz, arrantzara joan beharko dugu, eta ondoko baserrikoari tomate, letxuga, tipula eta hainbat patata lapurtuko dizkiogu, entsalada bat egiteko. "Zu lasai -esan dit Igarnek-, ez dugu goserik igaroko".

"Beno, egin beharreko lehenengo gauza zera da, amonari deitu eta pasatako dena kontatuko diot, eta Igarne, zuk ere zure gurasoei deitu beharko diezu, ez kezkatzeko". Amonak, baiezkoan erantzun dit, baina bostak puntu-puntuan, gure bila etorriko da.

"Hasi da abentura!" -egin du garraxi Igarnek. Igarne eta biok kañabera bana hartu eta baserri ondoko errebara goaz, ea arrairen bat arrantzatzen dugun. Denbora bare bat bezain motel doa. Dagoeneko bi minutu besterik ez dira pasa, eta jada ezer baina aspertuago nago. Ixil-ixilik gaude, nire erlojuaren orratzen tik-tak soinua ezer baino gehiago entzuten da. Bat-batean, nire kañabera alde batetik bestera mugitzen hasi da. Igarneri abisatu diot laguntza pixka bat behar dudalako. Ez naiz batere trebea horrelako gauzetan. Listo, lortu dugu! lortu dugu arraina uretatik ateratzea. Arraina, kea baina grisagoa, eta elefante bat bezain handia. Orain, falta zaigun gauza bakarra, ondoko baserrira joan, eta baratzean barazkiak lapurtzea da.

Sartu gara baratzean. Dagoeneko bi tipula eta patata pare bat hartu ditugu, baina... kaka eginda gaude. Baratzaren beste aldean norbait dabil. Gu azkar-azkar, tomateak ematen dituen

landare baten atzean ezkutatu gara. Tomateak hartzeko ere aprobetxatu dugu. Tomateen alboan letxugak daude, beraz, letxuga bat hartu eta baratzetik kanpora atera gara. A zer lasaitasuna. Dagoeneko ia-ia guztia daukagu. Adarrak eta harriak bakarrik behar ditugu, sua piztu, eta arrai goxo-goxoa ahotik barrena sabelera sartzeko. Bilatu ditugu adarrak, eta harriak ere bai, beraz, martxan jarri gara. Sua pizten ari da. Arraina erditik moztu, eta suaren alboan jarri dut. Letxugak, tomateak, tipulak eta patatak errekan garbitu ditut, zikin zeuden eta. Jaten hasterako laurak laurden gutxi dira. Ez daukagu denbora gehiegi. Eskuak uretan garbitu, eta jaten hasi gara. Arraina, ikatza bezain beltza dago, baina beno... gosea ez da makala.

Bukatu dugu bazkaltzen. Dena txukun-txukun utzi dugu eta orain Igarnek ekarritako kartekin partida batzuk jokatzen ari gara. Asko atsegin dut kartekin eskoban jokatzea. Ez da batere erraza Igarneri eskoban jolasten irabaztea. Paregabea da kartetan jolasten, eta eskoban batez ere!

Berokiak hartu, belar bustiaren gainean jarri eta zeruari begira, gure gauzak elakarri kontatzen gustura gabiltza. Ze pena hemendik joan behar izatea.

Amona Mari Tereren autoaren bozina entzutean, azkar azkar altxa eta autora abiatu gara. Amonari gertatutako guztiaren berri eman diogu.

Hurrengo batean berriz etortzea espero dut. Antzeko abentura bat igaro nahi dut. Eskerrik asko guztiagatik Igarne. Lagun bikaina zara!